Laburki esateko bere helburua, "Hiriak dituen ahalbide guztiak gazteriarentzat antolatu eta programatzea" litzateke.

Torinon Gazteriaren ordezkari nagusi bat zabaldua dute jadanik eta bosturteko honetan gehiago zabaltzeko asmotan dira. Ordezkari honetan, etengabe zortzi bat pertsona liberatuk dihardute projektu honen plangintza zuzentzen. Koordinatzaile gisa, arduradun orokorra dute eta gero, ondoren ikusiko ditugun arlo desberdinen arduradunak eta administraria.



Projektu honen lehen urratsak eman eta oinarriak finkatzeko Udalak bere presupostutik 27 milioi pezeta inguru eman ditu Torinon bizi diren 260.000 gazteengana hurbil nahiz.

Kontutan hartu behar da gainera, presupostu hortan ez direla lehen aipaturiko arduradunen kostuak sartzen.

Bestalde, zenbait arduradunek aitortu zigutenez, projektu hau nahiko zihurra omen da eta ez omen du porrot egiteko inolako arriskurik, ez eta Udaletxean indarren aldaketa sortuko balitz ere. Izan ere "Progetto Giovani" udalean dauden indar politiko guztien akordioz eta kontsentsoz moldatua bait da.

Lehen aipatu dugun bezala, mugimendu hau 1977.ean sortu zen, talde bat gazteriari buruzko zenbait gaietaz kezkatzen eta elkartzen hasi zenean: elkartek, droga, reformatorioa e.a.

Horrela, 1980-85 bosturterako "Progetto Giovani" moldatu zuten Udalaren babespean.

Ondoren, laburki aipatu, projektu honen arlo eta langintzarik nagusienak aipatuko ditugu argigarri gerta dakizkigun:

## "Progetto Giovani"

Es un proyecto preparado para la juventud y para su servicio.

La Conserjería de Tiempo Libre, Juventud y Deporte, del Ayto. de Torino, prepara y coordina este amplio proyecto.

Hasta 1977 no había programación de este tipo y los trabajos sobre la juventud se encaminaban de otra forma: cultura, educación, salud...

Así pues, para aligerar los graves problemas que tiene la juventud y ofrecerle algunas soluciones, el Ayto. comenzó a preparar un proyecto y también creó un departamento, dentro de la Conserjería que hemos citado anteriormente, y que coordinaría todas las actividades que se hicieran para la juventud.

Las fuentes que hemos usado para hacer este trabajo, han sido aparte de las relaciones y conversaciones que tuvimos allí, un grueso informe "Progetto Giovani, 1980-85" que tenemos entre manos.

En este quinquenio el Ayto. tiene un proyecto concreto. Aunque sólo se hayan dado los primeros pasos, no se puede negar que el proyecto va hacia adelante después de lo que vimos y comprobamos allí.

Es único en toda Italia. Está dedicado a los jóvenes de 15 a 29 años. Además del Departamento de la Juventud también hay otros que atienden a la misma: cultura, trabajo, tiempo libre. Esto quiere decir que el Departamento de la juventud no dirige exclusivamente el trabajo de servir a la juventud.

El objetivo principal radica en programar y organizar todas las posibilidades que la ciudad ofrece a la juventud".

En Torino la juventud cuenta hace tiempo ya con una representación y en este quinquenio se pretende ampliarla. En esta representación hay ocho liberados que están trabajando continuamente en el planteamiento de este proyecto. Tienen un responsable coordinador y responsables y administradores de los diferentes aspectos que luego veremos.

Para dar los primeros pasos de este proyecto y poner sus bases el Ayto. de Torino ha destinado cerca de 27 millones para acercarse a los 260.000 jóvenes que tiene. Hay que tener en cuenta que en este presupuesto no entran los sueldos de los responsables arriba citados.

Además, por lo que nos han comentado, este proyecto es bastante firme, y no parece posible que fracase, ni aunque la Corporación del Ayto. cambiase, ya que el citado proyecto ha sido aprobado con el consenso de todas las fuerzas presentes en el Ayto.

Como ya hemos citado anteriormente, este movimiento nació en 1977. Cuando un grupo se empezó a preocupar y reunirse: sociedades, droga, reformatorio... Así se preparó el Progetto Giovani 1980-85, bajo el respaldo del Ayto.

A continuación citaremos los aspectos y características más importantes de este proyecto, para que quede más claro.

### 1.— Gazte Kontseilua:

Kontseilu honetan Torinoko gazteen elkarte eta bazkun guztiak hartzen dute parte, bai talde politiko mailan eta baita beste edozein arlotako gazte taldek ere. Horrela, debateak, inizatiba publikoak e.a. bultza nahi lirateke gazte mailan. Kontseilu honetan elkarte guztietako ordezkariak biltzen dira eta gazteriari buruzko gaietan Udalaren organo kontsultibo bezala funtzionatzen du. Kontseilu hau gazteen arazoan "termometro" bat litzateke, heuren ordezkari batek aipatzen zuen bezala.

### 2.— Gazteriaren informazio eta dokumentaziorako biltokiak:

Biltoki hau zabaldu berria dute eta bosturteko hontan hiriko leku desberdinetan beste lau zabaldu asmoz dihardute.

Leku honetan gazteriari buruzko informazioa arloka banaturik dago eta edozein gazteren zerbitzutan gainera. Horrela, eskola-lana, enplegua, osasun zerbitzuak, oporrak edo beste gairen bati buruzko informazioa nahi lukeen edozein gazte jo lezake biltoki horretara. Adibidez, Torinon soldaduska egiten ari den kanpoko gaztearentzat zuzendurik, badute informazio berezirik ere, hiria errazago eta egokiago ezagutu dezan.

Heurek aitortzen zuten bezala, arlo hau, nahiz eta Projektu osoaren barnean joan, hastapenetan dago, izan ere, proiektu osoa ezagutzeko eta bertan murgiltzeko sarrera bait da.

Bakarka edo taldeka joan daiteke zentru horietara, nahiz Torino bertakoentzat nahiz kanpotarrentzat.

Sensibilizazio mailan ari dira orain, kontzientziatze fasean, alegia. Dagoeneko gazte dexente hurbildu da eta gero eta gehiago hurbilduko zaiela espero dute.

Zentru honen beste zeregin bat beste departamenduekin harremanetan jartzea ere bada.

Informazioa estimulo bezala erabili nahi dutenez, "Informagiovani" izeneko aldizkari bat ere argitaratzen dute hilero. Hamabost mila ale dohan banatzen dira Torinoko gazteen

artean. Ale bakoitzean gai nagusi bat agertu ohi da eta, ondoren, era guztietako informazio bilduma bat eskaintzen da: hasi zinema, antzerki e.a.-en egitarau eta beste hainbat ekintzen berri emateraino, beti ere gazteriari dagozkion gaietan: kirol, kultura e.a.

Ale bereziak ere argitaratzen dituzte gai orokor bati buruz: bakeari buruzkoa adibidez. Bertan Hiriko ideologia desberdineko hogeiren bat taldek bakeari buruzko iritzi desberdinak aurkezten dituzte.

Honetaz gain, eta oraindik asmo hutsetan badago ere, aldizkari honekin egiten duten bezalatsuko zerbait "video" bidez egiteko asmoa dute. Horretarako RAI (Italiako irrati-telebista) elkartearekin kontaktatzen dute.

### 3.— Lanbide hezkuntza eta orientabideak:

Departamendu honek "scuola media" delakoaren irakasle-goarekin kolaboratzen du, azken urtekoetakoekin batipat. Oinarrizko ikasketak amaitu eta produkzio mundua sartu nahi lukeen gaztearentzat orientabide izatea nahi luke atal honek.

Bestalde, eta arlo honi loturik, Torinoko Udalak bost Lanbide Eskola (eskola profesional) jestionatzen ditu.

Arlo hau Udaletxeko Lan Kontseilaritzaren bidez bideratzen da, noski.

### 4.— Hauzategietako laborategiak

Oinarrizko eskola bukatu eta lanik gabe aurkitzen diren gazteen arazoa nolabait arintzeko antolatua dira batipat.

Laborategi hauetan batipat artesau lanak egiten dira: mekanika, serigrafia e.a. ikas ditzakete hara joaten diren gazteek.

Honen helbururik nagusia ez da lanik ezaren soluziobide bilakatzea, ez eta gutxiago ere. Gazteari motibazio bat eman nahi zaio eskolan bere ikasketak jarrai ditzan edo bestela lan finkoagoaren buruzpideak molda ditzan.

### 1.— El Consejo de Jóvenes

En este Consejo toman parte todas las asociaciones y sociedades de jóvenes, tanto políticas como de otro tipo. Con ello se intenta intensificar el debate y la iniciativa pública. En este Consejo se reúnen representantes de todas las sociedades y funciona como órgano consultivo del Ayto. en los problemas de la Juventud. Este Consejo sería "el termómetro de la Juventud", como nos decía uno de sus representantes.

### 2.— Centros de información y documentación para los jóvenes

Acaban de abrir este Centro y piensan abrir otros cuatro durante este quinquenio. En este local está la información sobre la juventud organizada en áreas, y al servicio de cualquier joven. Así pues, cualquier joven que desee información sobre trabajo y estudios, empleo, sanidad, vacaciones u otro tema puede acudir a esta oficina. Por ej.: para los jóvenes que están haciendo el servicio militar en Torino y no son de allí, hay una información especial para que conozcan más rápidamente y adecuadamente la ciudad.

Como nos decían ellos, este aspecto aunque está en sus comienzos es una entrada para conocer el proyecto completo y moverse en él.

Se puede ir individual o colectivamente, y ser de Torino o de fuera.

Existe en principio un nivel de sensibilización o fase de concienciación, destinada a informar y debatir con los jóvenes las características del proyecto y sus posibilidades.

Otro quehacer de este Centro es llevar las relaciones con los otros departamentos.

Queriendo usar también la información como estímulo, editan una revista; "Informagiovani", mensualmente. Se reparten gratuitamente 15.000 números, entre los jóvenes torinenses. Cada número suele tener un tema monográfico y un resumen de información de todo tipo; programa de cine, teatro... y reseña de otras actividades, siempre interesante para la juventud: deporte, cultura, etc.

También se editan números especiales totalmente monográficos, por ej.: uno sobre la paz. En él expusieron lo que pensaban sobre el tema más de 20 organizadores diferentes de jóvenes.

Aparte de éste y aunque todavía esté en proyecto, lo mismo que se hace con la revista quiere hacerse mediante video. Para ello cuentan con la ayuda de la RAI (RTV italiana).

### 3.— Enseñanza profesional y educación

Este departamento colabora con los jóvenes que asisten a la enseñanza media, sobre todo a los últimos cursos. Quisiera orientar a los jóvenes que terminan sus estudios obligatorios y quieren meterse en el mundo de la producción.

Dena dela, hauzategietako laborategi hauetan sei hilabete baino gehiagorako ez da inor hartzen. Hala ere, hara doan gazteak lan egiten duenez, nolabaiteko soldatxo bat ere ematen zaio.

Laburki esateko, hauek dira bere helbururik nagusienak: gutxienezko kapazitate profesional bat bultzatzea gaztearengan eta lanerako estimulatuzaile eta suspertzaile izan.

## 5.— Gazte kooperatiben eragintza

Beste ekintzen artean Udalak "Gazte kooperatibak" bultzatzen ditu. Horrela, horretara joaten diren gazte taldeek kooperatiba bat osatu dute eta hiriak dituen zenbait beharriaz lanetan parte hartzen dute.

Udalak ematen duen laguntza batipat ekonomikoa da. Udalak dirua aurreratzen dio kooperatibari gero epe luzera eta korriturik gabe itzul diezaion.

Heuren langintzen artean kultur animatzaile eta zerbitzu sozialetan dira garrantzizkoenak. Ez dira kooperatiba produktiboak. Gehienbat, osoki ez esateagatik, hirugarren sektorean dihardute.

Horrela, batzu zenbait arte lantzeko eta suspertzeko sortu dira: dantza, musika, antzerkia; pintura... eta beste batzu politiko-administral zerbitzu eta laguntza izango dute beren helburu. Hirian bizi diren sektore desberdinen denbora libre bideratze lanetan ere iharduten dira beste zenbait kooperatiba.

## 6.— Artisautzaren eragintza

Torinon 30.000 artisauek daude baina langintza hau, leku gehienetan bezalatsu galduz doa. Horrela bada, Udalak, bere Lan Kontseilaritzaren bidez gazteengan artisautzaren zaletasuna sortu nahi luke; alde batetik, langintza hau Torinon galdu ez dadin eta, bestalde, zenbait gazteek lana izan dezan.

Bestalde, udalak berehalaxe, jadanik egin ez badu, Torinoko artisautzaren "mapa" bat argitaratuko du, artisautza mailaka-mailaka eta auzoz-auzo aurkeztuz. Horrela artisautzaren errealitate produktiboa jakin ahal izango da batetik, eta jendeari artisautzaren berri emango zaio bestetik, langintza hau suspertuz.

Por otro lado, y relacionado con esto el Ayto. de Torino gestiona 5 escuelas profesionales. Este aspecto lo hace mediante la Conserjería de Trabajo.

## 4.— Talleres para barrios

Fueron creados para aligerar un poco el problema de los jóvenes que acaban la escuela y se encuentran sin trabajo.

En ellos se hacen sobre todo trabajos de artesanía: mecánica, serigrafía...

Su objetivo no es dar una solución al paro juvenil, ni mucho menos. Lo que se quiere es dar una motivación al joven para que continúe estudiando o se prepare para un trabajo más firme.

De todas formas en estos talleres no se puede estar más de 6 meses. A los jóvenes que van a ellos se les da una pequeña compensación económica.

Sus objetivos primordiales son: promover una capacitación profesional mínima en el joven y ser un estímulo para el trabajo.

## 5.— Ayuda a las cooperativas de jóvenes

Entre otras actividades el Ayto. promueve las cooperativas de jóvenes. Con ello los grupos de jóvenes que se acogen a esto forman una cooperativa y toman parte con su trabajo en las necesidades de la ciudad.

La ayuda que da el Ayto. es sobre todo económica. El Ayto. hace préstamos a la cooperativa, para ser devueltos a largo plazo.



## 7.— Elbarrien aldeko lana

Bistakoa denez, hau ez da "Progetto Giovani" delakoan bakarrik sartzen eta arlo hau lan orokorraren barnean beste atal berezi batetan sakonago aztertzen da.

Sus campos de trabajo más importantes se encuentran en la animación cultural y en los servicios sociales. No son cooperativas productivas. Normalmente pertenecen al sector terciario.

Algunas mantienen una actividad de tipo artístico, danza, música, teatro, pintura. Otras tienen como objetivo la ayuda y el servicio político administrativo. Algunas otras cubren los trabajos de encaminar el tiempo libre de los diferentes sectores que viven en la ciudad.

## 6.— El cuidado de la artesanía

En TORINO hay 30.000 artesanos, pero debido a diversos factores (industria...) es una actividad que se va perdiendo. Por ello el Ayto. mediante su Conserjería de Trabajo quiere crear aficionados de la artesanía, para que no se pierda en TORINO, por un lado, y para que muchos jóvenes encuentren en ello su puesto de trabajo.

El Ayto., por otro lado ha editado un mapa de la artesanía en TORINO, presentándola por actividades y varios. De esa forma, será posible conocer la realidad productiva de la artesanía y por otro lado se informa a la gente sobre la artesanía, intensificándola.

## 7.— Trabajo a favor de los minusválidos

Como se puede pensar a simple vista esto no depende sólo del Progetto Giovani, y este aspecto se profundiza más en otro apartado.

### 8.— Drogodependentzia

Arlo hau ere ez da zuzenki "Progetto Giovani" delakoan sartzen, izan ere, beste zerbitzu bat bait dago arazo hau bideratzeko.

Dena dela, gazteriaren departamenduak ere parte hartzen du eta nolabait berarekin koordinaturik aurkituko da arlo honetan ere. Horrela, arazo hau lan orokorraren beste atal batetan aztertzen da.

### 9.— Etxe babesleak:

Etxebizitzaren arazoa duten gazteentzat zenbait etxe antolatu du Udalak. Migrariak eta Torinora ikasketak egitera etorri direnentzat dira beste zenbaiten artean.

Bestalde, eta familia arazoak dituzten gazteentzat ere erabiltzen dira horrelako etxeak. Horrela, bere etxean bizi nahi ez duen gaztea etor daiteke horrelako etxebizitzetara. Etxekoekin akordioz egin daiteke bere semearen etxe berezi hauetara etortze hau. Akordiorik ez balego auzitegi batek erabaki ohi du.

### 10.— Erreformategiak eta Udala

Udaleko Lan eta Gazteria Kontseilaritzek maila honetan ere badute plangintza berezirik. Horrela, erreformategietan egiten den lanaren bidez, bertan dauden gazteen birreku-perapena lortu nahi litzateke berriro kaleratuko liratekeenerako.

Kultur eta kirol mailako ekintzez aparte eta artisau elkarten laguntzaz, profesio mailako ekintzak ere antolatu dira erreformategietan.

Ekintza hauek gehienetan kooperatiba desberdinen bidez egiten dira. Kanpoarekin harremana izan dezaten ere nahi izaten da eta adibide bat jartzekotan, antzerki kooperatiba batek behin, gazte hauen bidez prestatu zuen antzerki saioa, hiriko antzoki batetan aurkeztu zuten.

### 8.— Drogodependencia

Este aspecto tampoco entra directamente en el Proyecto Giovani, ya que hay otro servicio para dirigirla.

De todas formas el Departamento para la Juventud también toma parte y en cierta forma se encuentra coordinado con él en este servicio. Este problema se analiza en otro apartado de este trabajo.

### 9.— Casas protegidas

El Ayto. ha preparado casas para aquellos jóvenes que tienen problemas de vivienda. Son sobre todo jóvenes emigrantes o estudiantes que llegan de otras partes de Italia.

Estas casas también se usan cuando el joven tiene problemas familiares. Cuando él no quiere vivir en su casa puede ir a una de estas casas. Puede hacerse de acuerdo con la familia. Si no hay acuerdo tiene que decidirlo un Juez.

### 10.— Los Reformatorios y el Ayuntamiento

Las Conserjerías de Trabajo y Juventud del Ayto. tienen también un plan a este nivel. Así por medio del trabajo que se hace en el reformatorio se quiere conseguir la recuperación de los jóvenes que están en él, aprovechando su estancia ahí de cara a prepararlo para cuando se vuelvan a integrar en la vida de la ciudad.

Aparte de actividades culturales y deportivas, y con ayuda de sociedades artesanales se han organizado también actividades profesionales en los reformatorios.

### 11.— Ingurugiroaren babesa eta bere gestioa

Hiriko ingurugiroa berreskuratu eta zaintzea da arlo honen helburu nagusia. Ingurugiro eta Gazteria Kontseilaritzek bideratzen dute langintza hau.

Nahiz eta Udaleko kontseilaritzek zuzendu ekintza hau, borondatezko lan bidez aurrera ematen da, gazteen bidez gehienbat.

Zenbait kanpaina prestatzen da helburu berezi batzuz: berdeguneak bultzatzea, peatoi bideen eskabideak egin, garraio publikoaren aldeko kanpainak, joku eta kirolaren aldeko kanpainak, ibai garbiketak e.a.

Adibide gisara, 1979.ean 500 gaztek parte hartu omen zuten zeregina honetan.

### 12.— "Scuola Secondaria" (2. mailako eskola) eta hiriaren hurbiltzea

Arlo hau ere ez doa zuzenki Gazte Kontseilaritzaren esku. Hezkuntza eta Kultur kontseilaritzaren esku baizik. Hiria oinarrizko eskolaren zerbitzutan ipini nahi izan den bezala, eta maila batetan lortu denaren antzerako zerbaitekin egin eta sendotu asmoz dabilta bigarren mailako eskola honetan ere.

Honatz landu nahi liratekeen zenbait arlo: zinema, musika, hitzaldi sail desberdinak, sindikatuen historia, hizkuntza eskolak, osasuna eta hijienera, ekologia, antzerkia...

### 13.— Udala eta unibertsitatea:

Denak Torinoarrak ez ba dira ere, Torinon 50.000 unibertsitari dabilta.

Unibertsitarien lanerako bide bat eman nahi zaie, bai ikasle diren garaian eta baita ikasketak bukatzen dituzten garairako ere baliagarri gerta dakien.

Estas actividades se hacen por medio de cooperativas.

También se intenta que tengan relaciones con el exterior, y por poner un ejemplo, una Cooperativa de Teatro preparó una obra con estos jóvenes, y la estrenaron en un Teatro de la ciudad.

### 11.— Protección del Medio Ambiente y su Gestión

El principal objetivo de este apartado es intentar controlar el medio ambiente de la ciudad y cuidarlo. Esto lo llevan las Conserjerías de Medio Ambiente y Juventud.

Aunque son actividades dirigidas por las Conserjerías Municipales, se llevan adelante por medio del trabajo voluntario, sobre todo juvenil.

Se preparan muchas campañas sobre objetivos concretos: aumento de zonas verdes, peticiones de pasos de peatones, campañas a favor del transporte público, a favor del juego y del deporte, parques, limpieza de ríos etc.

A modo de ejemplo: en 1979 - 500 jóvenes tomaron parte en estas actividades.

### 12.— "Scuola Secondaria" - La escuela Secundaria y el acercamiento a la ciudad

Este aspecto no está dirigido directamente por la Conserjería de la Juventud sino por la de Educación y Cultura. Así como se ha pretendido poner la ciudad al servicio de la Escuela Primaria y en cierta forma se ha

Horretarako zenbait sail egokitu dira: biologia, ekonomia, Merkatal saila, eritegiak e.a.

Horrela, sozial, osasun eta kultur mailatako lanetan parte hartuz unibertsitariak beren jakintza maila sendotzen joango dira teoria hutsean gelditu gabe.

#### 14.— Biltokiak

Biltoki hauek ez dira gazteen zerbitzurako soilik dauden lekuak ez eta gutxiago ere, nahiz eta gazteentzat zuzendutako sailak zati garrantzitsua bete.

Torinoko auzo guztietan antolatu dituzten leku berezi hauetan, denbora librerako zerbitzu eta maila guztietako denborapasako joku eta lan asko aurki daiteke.

Dena dela, lan orokorrean beste sail batetan aztertzen da bereziki "BILTOKIAK" deitu arlo hau.



logrado, también hay intenciones de hacer algo parecido respecto a la Secundaria.

Se podrían tocar los siguientes aspectos: cine, música, diferentes tipos de conferencias, historia de los sindicatos, escuelas de idiomas, salud e higiene, ecología, teatro...

#### 13.— El Ayto. y la Universidad

En TORINO hay 50.000 universitarios, no siendo todos ellos de allí.

A los universitarios se les quiere dar una posibilidad de trabajar, tanto mientras son estudiantes como para cuando terminen los estudios.

Para ellos se han preparado diferentes tipos: biología, economía, el aspecto comercial, hospitales, etc.

Así, mientras los universitarios toman parte en el trabajo social, sanitario y cultural, irán preparándose mejor en su papel, sin quedarse en una teoría vacía.

#### 14.— Lugares de Reunión

No son locales destinados únicamente a los jóvenes, pese a encontrarse en ellos diferentes actividades encaminadas a la juventud.

En todos los barrios de TORINO se han organizado locales de éstos, pudiendo encontrar en ellos muchos trabajos, juegos, y pasatiempos de todo tipo y al servicio del tiempo libre.

De todas formas, este aspecto se analiza en el apartado "Lugares de Reunión".

#### 15.— Coordinación de los grupos que se ocupan de la cultura

En este aspecto también se coordinan las Conserjerías de Cultura y Juventud.

#### 15.— Kulturgintzan diharduten taldeen koordinaketa

Arlo honetan ere Kultur eta Gazteria kontseilaritzek koordinatuta dihardute.

Sail honen helburua, hiri osoan kultur mailan diharduten talde autonomo guztien ekintzak bultzatzea, suspertu eta koordinatzea litzateke.

Horrela, hiriko auzo desberdinetan lanean diharduten musika talde, argazki talde, antzerkilari e.a.en ekintza eta asmoak koordinatu nahi litzate sail honek.

#### 16.— Soldaduska eta herri zerbitzua:

Soldaduska dela eta ideoloji nahiz kontzientzi arazoengatik harmarik hartu nahi ez duten gazteek beste zenbait herri zerbitzu aurrera eramane dezakete.

1972.eko estatu lege batek horretarako bide ematen du eta 1975.ean Torinon lehen aipaturako gazteei zuzenduriko zentru bat antolatu zuen Udalak. Langintza hau lehen aipatu ditugun zerbitzu sailetan ematen dute aurrera: biltoki eta kultur mailako suspertzaile bezala, denbora libreari buruzko ekintzak eta egitarauak antolatzen e.a.

#### 17.— Kanpoko gazteekiko harreman eta interraldaketak eta turismoa

Udalaren ekintzetarik bat gazteen udaldiak antolatu eta suspertzea da.

El objetivo de este aspecto sería promocionar, animar y coordinar las acciones de todos los grupos autónomos que se ocupan de la cultura en toda la ciudad.

Así pues se quiere coordinar los proyectos y actividades de grupos musicales, fotográficos, teatrales... que trabajan en los diferentes barrios de la ciudad.

#### 16.— El Servicio Militar y el Servicio al pueblo

Los jóvenes que por ideología o problemas de conciencia no quieren ir al servicio militar pueden cumplirlo prestando este servicio al pueblo.

Una Ley Estatal de 1972 lo permite y en 1975 el Ayto. organizó un centro para los jóvenes. Esta clase de trabajo permite entrar en servicios citados anteriormente: como dinamizadores de centros de reunión y cosas de cultura, actividades de tiempo libres organizando programas y demás.

#### 17.— Relaciones extramunicipales, intercambios y turismo

Otra actividad del ayuntamiento es organizar y proyectar actividades para el verano dirigidas a la juventud.

Para los más jóvenes (básica...) estas actividades se reducen al entorno de Torino (campamentos, excursiones, etc.).

Para los de más edad el programa de actividades es más amplio y no se reduce al ámbito local.

Así se ofrece a la juventud de Torino la posibilidad de viajar, durante el verano, tanto dentro de ITALIA como a otros países europeos.

El objetivo de estos viajes se centra en dos apartados. El primero consiste en proporcionar al joven una forma de viajar asequible y económica. Por otro lado se analiza la utilidad formativa de estos viajes dando posibilidad para que el que lo desee pueda conocer las actividades económicas, industriales, culturales o sociales de los lugares que visita.



Alde batetik eta oinarrizko mailetan dabilzan ikasleen artean, batipat, Torinon bertan antolatzen dira udako ekintzak. Baina gazte helduagoekin plangintza zabalago eta sendoago bat bultzatzen da.

Horrela, Torinoko gazteriar bere udaldia igaro dezan zenbait bidaiak eskeintzen zaio, bai Italia barruan eta baita Europako beste herrialdeetara ere.

Baina, ez dira edozein moztetako bidaiak izan ohi. Ekonomi mailako erosotasunaz gain, turismoari informazioa eta hezkuntza lotu nahi zaizkio. Horrela Udalaren helburua, kanpora udaldia igarotzera doan gaztea bide batez, "ikas-tera" joan dadila litzateke. Ez dadila ongi pasatzera soilik joan. Horretaz gainera bertako berri ere jakin dezatela maila guztietan.

### 18.— Kirol eragintza:

Arlo hau ere ez da soilik gazteriar zuzendua baina zalantzarik gabe eta normala denez batipat gazteriar zuzendua da.

Maila honetan egindako plangintzaren arauera Udalak kirola eragin nahi luke maila desberdinetan. Baina Udalaren helburua kirol minoritarioak bultzatzea da, futbolak eta, bultza beharrik ez bait dute.

Honela ez da harrizkoa Torinoko gazteek edozein moztetako kirola, kostu handirik gabe praktika ahal izatea: esgrima, saski baloia e.a.

Torinon, maila honetan ikus diatekeen gauzarik bitxienetarikoa, "Palazzo a Vela" deituriko polikiroldegi zabala da.

Bertan atletismoko pista, saski baloioa, tenis, eskubaloio, ping-pong lekua e.a. daude eta baita alpinismo, eskalada eta mendi kirolak dituen arlo guztiak lantzeko antolaketa bat ere. Hormigoiz eta harlosaz eginiko menditzar bat dute aipaturiko polikiroldegian, eta bertan mendiak dituen eragozpen guztiak ezarriak dituzte torinotarrak bertan treba daitezten mendira atera aurretik.

Bestalde, neguan eta udan kirol bereziak lantzeko ere izaten da noski, neguan mendia eta udan igeriketa.

### 19.— Hamalau urtetatik gorako gaztetxoentzat plangintza berezia

Adoleszentzia garaian dauden gaztetxoek jasaten dituzten arriskuak ikusirik, Asistentzi eta Gazteria kontseilaritzek maila honetarako plangintza bat prestatu dute.

Garai honetan, eskola utzi eta askotan gaztetxoa desbabesturik eta noraezean aurkitu ohi da sarritan eta oso erraz eror daiteke zenbait arazo arriskutsutan: droga, lapurreta, e.a.

Horrela, lan honen atal honetan aurkeztu diren zenbait gai eta zerbitzuak eskeiniko dizkien talde bat osatu du Udalak, arazo hau aztertu eta bosturteko honetan plangintza berezi bat landu eta koordinatzeko.

Plangintza hau gaztetxoa bizi den arlorik nagusienetan lantzen eta kausitzen da: Familia (arazoak dituen familiari lagunduz), Etxea (lehen aipaturiko etxe babestuak e.a.), Eskola (Lanbide eskola eta orientabideak, alfabetatzeak e.a.), Lana (auzoetako laborategiak, artesautza eta kooperatibak e.a.), Denbora libre (biltokiak, kirola e.a.).

## 18.— Organización deportiva

Esta no es sólo de cara a los jóvenes pero sin duda y como es normal se dirige sobre todo a ellos.

A este nivel, y según su programación el Ayto. tiene presente los diferentes deportes, pero su objetivo es promocionar los deportes minoritarios, ya que el fútbol y otros cuentan con la suficiente infraestructura como para responder a las necesidades que se presentan.

Así no resulta extraño el que los jóvenes de Torino puedan practicar cualquier deporte sin grandes gastos: esgrima, baloncesto... A este nivel lo más original que se puede ver el polideportivo: "Palazzo a vela".

En él hay: pista de ping-pong, balonmano, tenis, baloncesto, pista de atletismo... y también un montaje para practicar todos los aspectos del deporte de montaña, alpinismo y escalada. Hay en el citado polideportivo una falsa montaña de hormigón y piedras y en ella están reproducidas todas las dificultades que presente la montaña para que los torinenses, se puedan entrenar antes de salir.

La planificación existente en este aspecto cubre las necesidades para practicar tanto el deporte de verano como el de invierno.

### Planificación especial para los jóvenes de más de 14 años

Analizando la problemática de los más jóvenes, la Consejería de Asistencia y Juventud ha preparado para ellos un plan especial.

Una vez terminado el periodo escolar el joven se encuentra desamparado y sin iniciativas lo que favorece el desarrollo de la delincuencia y la droga. Para tratar de enfocar este posible problema el Ayuntamiento a puesto en actividad un grupo de personas para que analicen la situación y vayan preparando y coordinando un plan para este quinquenio (80-85).

Este plan analiza y actúa en las esferas más importantes en que se mueve el joven: Familia (analizando y enfocando los diversos problemas de tipo familiar que aquejan al joven), vivienda (dar posibilidad al joven de independizarse de su familia), enseñanza (alfabetización, orientaciones, escuelas profesionales...), trabajo (talleres de artesanía, cooperativas...), tiempo libre (centros de reunión, deportes...).

---

## “Centri d’incontro” (Kultur etxeak)

Auzo bakoitzeko herri ekintza eta kezkek nolabait biltzeko eta bertako jendea elkar ezagutzeko Torinoko udalak auzo bakoitzean sortu dituen biltokiak dira “Centri d’incontro” delakoak.

Gazteengandik, zaharregandik eta beste oinarriko taldeengandik (auzo elkarte, kuadrila e.a.) sortutako eskabideei erantzun asmoz 1978.ean, Torinoko udala kultur etxe hauek eraikitzen hasi zen. Gaur egun, Torinoko auzo bakoitzak bere “Centri d’Incontro” du.



El A  
con  
Para  
asoc  
com  
Los  
orga  
lo ta  
Su o  
taber  
inicia  
No q  
de la  
En es  
su au  
— Un  
las re  
— Me  
— O  
un se  
Los a  
cartas



Bertako ekintzen helburu nagusiak, integrazio soziala eta, informazio, kultur eta kirol mailako ekintzen antolaketa eta koordinaketa dira. Beraz, "denbora libre" edo "aisia" sailean bete-betean sartzen den ekintza.

Bere helburua ez da auzoetako jendea taberna batetan bilduko litzatekeen bezala biltzea soilik, auzoko informazio, inizatiba eta ekintzen biltoki eta eragile bihurtzea baizik.

Ez du elkarte publikoen organu izan nahi, ez eta gutxiago ere, auzoko jendearen harreman leku baizik.

Kultur etxe hauetan ekintza desberdinak ematen dira eta auzo bakoitzak bere autonomia du. Leku bakoitzean zenbait arduradun animatzaile ere badago, hots:

— Udaletxearen babespean diharduen langile bat: administrazio lanak egiten ditu eta udalarekiko harremanetarako arduraduna da.

— Ekintza desberdinak bideratzeko dauden animatzaile edo monitoreak.

— Soldaduska egin ordez, zerbitzu soziala eginez, kultur etxe hauetan diharduten kontzientziako eragozleak (objetores de conciencia).

— Tailerrak: pirografia, argazkia, serigrafia, antzerkia, eskultura, margoketa...

— Ikastaldiak: gitarra, bateria, abestia, zaharrentzat soinketa, dantza, txirula, pianoa...

— Laborategiak: oihalgintza, makrobiotika, osasuna, keramika, mimoa, gorputz expresioa, kirola...

— Ekintza desberdinak: Jaiak, mahai jokuak, dantzaldiak, batzarreak, filma emankizunak, hemeroteka, hitzaldiak...

Zahar eta erretiratuak egun guztiz ibiltzen dira bertan, karta jokuan, aldizkari eta egunkari irakurtzen, musika entzuten e.a.

Eskolorduak amaitzean, gazteek ere badute beren afizioak lantzerako aukera. Dena dela, haseran talde baztertuei erantzun asmoz sortutako projektua bazen ere, auzoko edonorentzat zabalik daude kultur etxeok.

Haseran, etxe hauetara batipat marjintatuak agertzen ziren: zaharrak, gazteak, neska-mutil "zailak". Ondorioz, zenbait unetan, nahiko arazo sortu izan da. Baina, bestalde, udalari nahiko aukera egokia sortu zaio talde marjintatu hauekin harremanetan sartzeko.

Animatzaile edo monitoreentzat ikastaro bereziak ere antolatzen ditu udalak. Izan ere hauen zeregina oso garrantzitsua bait da kultur etxe hauetako martxa ongi joan dadin.

Ondoren, kultur etxe hauetako ekintza desberdinak aipatuko ditugu. Honek ez du esanahi etxe bakoitzean ekintza guztiok ematen direnik, ez eta gutxiago ere. Bakoitzak bere autonomi osoa duenez, auzo bakoitzeko jendearen arauera antolatu ohi dituzte ekintza desberdinak. Honatx, beraz, Torino osoan zehar kultur etxeotako antolaketarik nagusiak:

## "Centri d'Incontro" "Casas de Cultura"

El Ayto. de Torino creó los Centros de Encuentro para que la gente se conociese y se reuniese. Lo hizo a nivel de distritos.

Para responder a los deseos de los jóvenes y jubilados (pasando por asociaciones de barrio, cuadrillas y demás) el Ayto. de Torino en 1978 comienza a construirlos. Hoy en día cada departamento tiene el suyo.

Los principales objetivos de sus actividades son: la integración social y la organización y coordinación de las actividades culturales y deportivas. Por lo tanto es una acción que entra de lleno en el llamado tiempo libre u ocio.

Su objetivo no es solamente reunir a la gente como se pudiera reunir en una taberna, sino convertir a estos locales en núcleos y motivos de actividades e iniciativas.

No quiere ser órgano de asociaciones públicas, sino local de las relaciones de la gente del distrito.

En estas casas de cultura se dan actividades diferentes y cada distrito tiene su autonomía. En cada uno hay algún animador responsable. Por ejemplo:

— Un trabajador municipal. Lleva la administración, y es el responsable de las relaciones con el Ayto.

— Monitores o animadores de las diferentes actividades.

— Objetores de conciencia que en lugar de hacer el servicio militar prestan un servicio social en estas casas.

Los ancianos y retirados suelen pasar todo el día en ellas, jugando a las cartas, leyendo la prensa, oyendo música, etc.

Cuando acaba el horario escolar los jóvenes también tienen oportunidad de cultivar sus aficiones. De todas formas aunque al principio estas instituciones fueron creadas para atender a unos grupos determinados, hoy en día, están abiertas a cualquier persona del distrito.

Al principio en estos locales aparecían marginados; ancianos, jóvenes, chicos difíciles. Como consecuencia aparecieron problemas. Pero, como contrapartida al Ayto. se le creó un espacio bastante adecuado para dialogar con ellos.

El Ayto. organiza cursillos para estos monitores, ya que su preparación es muy importante para que las casas de cultura funcionen.

A continuación citaremos las diferentes actividades de estas casas. No se dan todas las actividades en todas las casas. Cada una tiene su autonomía, en función de la gente se dan diferentes actividades. Así pues, en todo Torino éstas son las actividades principales:

— Talleres: Pirografía, fotografía, serigrafía, teatro, escultura, pintura.


— Cursillos: Guitarra, batería, canto, gimnasia para la 3.ª edad, danza, flauta, piano...

Laboratorios: Telares, macrobiótica, salud, cerámica, mimo, expresión corporal, deporte...

Otras actividades: Fiestas, juegos de mesa, bailes, reuniones, películas, hemeroteca, conferencias...

# Infraegituraren zenbait alor

- 1 — IKASTETXE ETA ZERBITZU OSAGARRIEN PLANIFIKAZIOA.
- 2 — EREDU DIDAKTIKO ERATZAILEAK.
- 3 — IKASTETXEGINTZEN SISTIMA.
- 4 — IKASTETXEGINTZETAN ERABILTZEN DIREN MATERIALE ETA TEKNIKEN LABURPENA.



## 1.— Ikastetxe eta zerbitzu osagarrien planifikazioa

Hezketa zerbitzuari ipintzen zaizkion helburu orokorrekin barnelotura duen planifikazioaren arabera doa ikastetxeen prestakuntza.

Sektore desberdinen (irakasle, guraso, e.a.) partaidetasunaren alde lan egiten da bertan, honela hirigintz-lanarekiko dagoen beldurra baztertuz.

Ez dugu ahaztu behar ikastetxe eta instalazio hauen planifikazioan zutik dirauen legeriaz ahal den gehienik baliatzen direla.

Hirigintz planifikazioaren oinarriko bi lanabes garrantzitsu daude; Egitamu Erregulatzailer Orokorra bata eta, Fabri-

kapen egitaraua (P.D.G.) bestea, non hauetan isladatzen bait dira azalera eta zerbitzutarako hautatzen diren edifikazioak, eta eskola, batipat.

Toki mugatu batetan ikastetxe eta zerbitzuen lekutasunerako edo eraikuntzarako, funtsezko diren bi erizpide hauek hartzen dira kontutan:

1.— Kokaturik edo kokatzeko dagoen bizilagun bakoitzeko m<sup>2</sup>en kopurua legez garantizatu.

## Aspectos infraestructurales

- 1.— LA PLANIFICACION DE EDIFICIOS ESCOLARES Y DE SERVICIOS COMPLEMENTARIOS.
- 2.— MODELOS DIDACTICOS ORGANIZATIVOS.
- 3.— SISTEMAS DE CONSTRUCCION DE EDIFICIOS ESCOLARES.
- 4.— BREVE RESUMEN DE MATERIALES Y TECNICAS QUE SE EMPLEAN EN LA CONSTRUCCION DE EDIFICIOS ESCOLARES.

2.— Dimentsio ezin hobea duten eta izen-eman duten guztien sarrera errazten duten ikastetxeen banaketa segurtatu.

Auzoko dentsitateaz eta lanpostuen erlazioarekiko dagoen hazkunde posibleaz gainera, inguruko aktibitatearen banaketa da eskola berriaren sortzeko erreferentzia baliagarrienetako bat, eskolako aktibitateari erants dakioken heinean, batipat.

(Eskola berriaren edifikazioaz aparte, auzoak eta hiriak eskaini lezakeen edozein oportunitate didaktikoren erabilkera errazteko, eta Egitamu Erregulatzailleak legez, aldezturik kontutan eduki beharrekoa.

Hirigintz-mekanismo bat bada Zerbitzu-Egitamua deritzana eta honen eginkizun bakarra zera da, hiriko zati ezberdinen arteko erlazioen konplexitatea azkartzea, hirigintza orekatu bat lortzeko asmoz.

Zerbitzu egitamu honen lehendabiziko lana, erlazioen kate koerente bat sortzean datza, hots, jadanik eraikirik edo eraikitzeke dauden edifizioen (hala publiko, nola pribatu) eta eskolaren arteko funtzionalitate bat sortu.

Azpimarratzekoa da honoko hau; Hirigintz-planuak aurrera ateratzen ez diren kasutarako, bada zutik dirauen legislazio bat, bere aplikapenaz baliu daitekeena eta probidentzial bat batez ere, lan publikoaren amaierari dagokion erabideen azelerazioaz arduratzen dena.

"Egitamu Erregulatzaille Orokorren" barnean (P.P.A. edo Programa Pluri-

ennale de Atuazione) administral atala dago eta zerbitzuen arteko eskaera eta eskaintza bat egiten edo egokitzen ahalegintzen da, eta era berean, sektore pribatutik datozen hirigintz fondeen erabileraren arteko eta lan publikoaren finantziamenturako lege estatal eta herrialdeetako legeak direla medio, udaletxetik datozen subentzioen artean lehentasuna ezarri.

Beraz, oso inportantea da eskolako langileak elkar ez ezagutzea eta elkarren artean hirigintz lanabesez ez mintzatzea, eta P.P.A.-ren aplikapen eta prestakuntzan laguntzea.

Ikastetxeen programakuntza eredu bakar bat eta berdin baten aldekoa izan da nazio guztian; lekutasuna beti erdialdekoena eta zabalena ukan dezala. Baina praktikan zailtasunak agertzen ditu. Metropolian zaila ez ezik, ezinezkoa da, arautegiak eskatzen dituen dimentsio libreak edukitzea.

Leku libre eta erregulatuetan eraikitako edifizioen kasuan aurrerapauso bat eman daiteke, hain hertsia ez den moldaera edo kontzepzioa ematen baldin bazaio ikastetxeari; hots, ikastetxe berrietan sozializaturiko aktibitate kolektiboari zerbitzatu dioten giro berriak moldatuz edo integratuz, usadioari irekiak, eskolaz kanpoko pertsoneri irekiak, bai zahar eta gazteentzat. Eta horrek herri barnekiko lotura handiago bat dakar.

Espazio ezaz edo antzinako edifizioak direla medio eskola zerbitzua eraikitzeke lekurik ezean, estrategia eginkorrago batetaz baliu gintezke, hau da, bata, berez ikastetxea deritzana eta bestea,

ingurua, eta hemen gimnasioa, jangela, laborategia, liburategia e.a., sartuko liratekeenak, eta pedagogia modernoan hain beharrezkoak direnak.

Zerbitzu hauen lorpenerako, bi alternatiba nagusi jarraitzen dira:

1) Eskualdean jadanik martxan diren zerbitzuez baliatuz, eskola-ekintzetara gidatu hauek.

2) Antzinan beste helburutarako eraiki ziren edifizioak aprobetxatu, adib.; lehen hegazkinetarako hangare bat zena, gaur egun Torinoko eta Europako polikiroldegi garrantzitsuenetariko batetan bilakatu da, zenbait aldaketa egin ondoren. (Bertan moeta guztietako ikastaldiak ematen dira, alpinismoa barne, Europa mailan bakarra da bere jeneroan).

## 2.— Eredu didaktiko eratzailleak

Gaur egun hezketa hiru moeta didaktiko eratzailleak daude, bakoitzak bere edifikazio erari erantzuten diolarik;

1) Eskola pasiboarena da lehenengo hezketa moeta didaktiko eratzaillea, gai berezietan ematen den jakintzaren zatiketari eta irakasleen eta haurren arteko gela bereizketa horretan oinarritua dagoena.

2) Bigarren eratzaille moeta ikasgela zatiketari baino gehiago, gaien zatiketari oinarritzen dena da. Bigarren moe-

## 1.— La planificación de los edificios escolares y de servicio complementarios

La preparación de los edificios escolares depende de la planificación de una red que sea coherente con aquellos objetivos generales asignados al servicio educativo.

Se fomenta la participación de los distintos sectores (profesores, padres, etc.) en ella, desterrando de esta forma el miedo a la tarea urbanística.

No hay que olvidar que en esta planificación de centros escolares e instalaciones es aprovechado al máximo la legislación vigente. Existen dos instrumentos muy útiles para la base de la planificación urbanística, que son el Plan Regulador General, y un programa de fabricación (P.D.G.) reflejándose en ellos el área y los edificios destinados a los servicios, y en particular a la escuela.

Para la ubicación de servicios y centros escolares en un determinado área se tienen en cuenta, dos criterios fundamentales:

1) garantizar por ley la cantidad de m<sup>2</sup> por todo habitante instalado o por instalar.

2) asegurar una distribución de los edificios escolares que faciliten el acceso de todos los inscritos y contemple un edificio de dimensiones óptimas.

Una referencia muy útil para la creación de la nueva escuela (además de tener en cuenta la densidad del barrio y su posible crecimiento en relación a los puestos de trabajo) es la distribución de la actividad del entorno, en cuanto tenga relación o se le pueda agregar a la actividad escolar; todo ello para facilitar el uso de toda oportunidad didáctica que el barrio y la ciudad puedan ofrecer independientemente de la edificación de la nueva escuela que el plan regulador por ley debe prevenir.

Hay un mecanismo urbanístico que tiene la tarea específica de acelerar la complejidad de las relaciones entre las diversas partes de la ciudad a los fines de una urbanización equilibrada, es aquello que genéricamente se conoce como Plan de Servicios.

La tarea primera de este plan de servicios es la de crear una red coherente de relaciones, es decir, una funcionalidad entre la escuela y los edificios del entorno ya edificados o por edificar ya sean públicos o privados.

Es muy importante subrayar que en los casos en que no se llevan adelante los planos urbanísticos, existe una legislación vigente para llevar a cabo su aplicación y sobre todo una providencial que se refiere a la aceleración de los procedimientos para la ejecución de la obra pública.

